

INFORMAZIO OHARRA

Eusko Ikaskuntza, etorkizuna lantzeko gunea

- *Mendeurreneko Kongresuaren liburuaren aurkezpen ekitaldian bere egitekoaren berri eman du erakundeak.*
- *Egun, zazpi dira lantzen dituen lehentasuneko lan-lerroak: Euskal Herriko etorkizuneko eszenatokiak eta estrategiak modu partekatuan lantzeko guneak dira.*

Donostia, 2020ko otsailaren 26a. Eusko Ikaskuntzak 2018an ospatutako XVIII. Kongresua biltzen duen liburua aurkeztu du gaur arratsaldean jendez lepo egon den Tabakalerako Kutxa Kultur Plazan. Eusko Ikaskuntzaren lehendakari Iñaki Dorronsorok eta XVIII. Kongresuko batzorde antolatzaileko lehendakari Xabier Alkorta hitza hartu dute, erakundearen idazkari eta diruzain den Ana Urkizak gidatutako ekitaldian. Ondoren, lan-lerro bakoitzeko bozeramaleek, elkarteak abian dituen proiektu nagusien inguruko xehetasunen berri eman dute.

Eusko Ikaskuntzaren XVIII. Kongresua Geroa Elkar-Ekin: Mendeurreneko Kongresua izenburu duen argitalpenak 582 orrialde ditu eta bi zatitan egituratu da. Lehenengoan, Eusko Ikaskuntzaren Mendeurreneko Adierazpena, Euskal Herriko lurralde(ar)en Liburu Zuriaren oinarriak eta erakundearen Mendeurrenaren oroitzapenen laburpena jasota daude (euskaraz, gazteleraz eta frantsesez). Bigarren zatian, 2018ko udazkenean bost euskal hiriburuetan eta Oñatin egin zen Kongresuko programaren bost saio bakoitzeko ponentzia, hitzaldiak eta mahai-inguruen laburpenak daude. Bigarren zatiko testu bakoitza jatorrizko hizkuntzan argitaratu da.

Ekitaldira bertaratu direnen artean eragile ezagun asko izan dira, besteak beste, hurrengoak: **Xabier Ezeizabarrena**, Gipuzkoako Batzar Nagusietako lehendakaria; **Maddalen Iriarte**, EH Bildu taldeko legebiltzarkidea; **Harkaitz Millán**, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirol Departamentuko diputatua; **Garbiñe Mendizabal**, Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko zuzendaria; **Mikel Arregi**, Nafarroako Gobernuko Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzailea; **Kepa Korta**, Donostiako Udaleko Estrategia Bulegoko zuzendaria; **Itziar Alkorta**, EHUKo Udako Ikastaroetako zuzendaria; **Joxemari Sors**, Elkar



Fundazioko presidentea; **Paul Bilbao**, Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluko idazkari nagusia; **Josu Waliño**, Puntueus Fundazioko zuzendaria; **Martxelo Otamendi**, Berriako zuzendaria; **Marije Etxaniz**, LABORAL Kutxako Komunikazio zuzendaria; **Javier Miranda**, Fundación Caja Navarrako presidentea; **Iñigo Marquet Beldarrain**, Orona Fundazioaren Garapen zuzendaria.

Etorkizunari begira 7 proiektu

Eusko Ikaskuntzak abian dituen jardun-lerroak, bakoitzaren ibilbideak eta aurreikusitako hurrengo mugarriak aditzera eman dira gaurko saioan. Guztira, zazpi dira 2019an hasi eta 2021 bitartean gauzatuko diren lehentasuneko proiektuak:

- ***Ongizate Ereduak Euskal Herrian:*** Ongizate-ereduaren, politika publikoen eta gizarte-zerbitzuen analisirako eta gizarte-berrikuntzarako mugaz gaindiko laborategi bat sortzea du helburu.
- ***Lurralde Oreka. Herri Txiki Adimentsuak:*** Xedea euskal lurraldeetan, landa gunearen despopulazio arriskuaren arazoa aztertzea eta irtenbideak proposatzea da.
- ***Aniztasunaren kudeaketa demokratikoa Nafarroan:*** Nafarroatik hasita, bertako jendearen bizikidetzan sakontzeko eta bizikidetzak hau zailtzen duten oztopoak gainditzea du jomuga.
- ***Hezkuntza sistema: etorkizuna elkarrekin lantzen:*** Euskal Herriko Hezkuntza Sistemari, ezberdintasun eta berezko ezaugarrien gainera, estrategia partekatu baterako oinarria finkatzea bilatzen da.
- ***Mugaz gaindiko gazte lankidetzarako sareak:*** Gazteak ahalduntzea, engaiatzea eta antolatzea da proiektu honen azken muga, gazteei zuzendutako elkargune eta hausnarketarako esparruak garatzearekin batera.
- ***Lurralde burujabetza gatazkak Europan: praktika onak eta ebazpen proposamenak:*** Gobernantza Demokratikoan sakontzea du helburu, erabaki-ahalmena sendotzeko eta garatzeko.
- ***GizarteLab, Trantsizioetarako gaitasunak esploratzen:*** Trantsizioei aurre egiteko xedearekin eta horretarako beharrezkoak diren gaitasunak sustatze aldera, gaur egungo erronkak zehaztea eta etorkizuna diseinatzea da proiektuaren helburu orokorra.

NOTE D'INFORMATION

Eusko Ikaskuntza, un espace de projection vers l'avenir

- *Lors de la présentation du livre publié à l'occasion du Congrès de son Centenaire, Eusko Ikaskuntza a fait part du travail qu'elle réalise actuellement.*
- *Elle développe actuellement sept domaines de travail prioritaires, qui correspondent aux différents domaines de projection partagée des scénarios et stratégies d'avenir pour l'Euskal Herria.*

Donostia, le 26 février 2020. Eusko Ikaskuntza a présenté le livre rassemblant les contenus du XVIIIe Congrès, organisé en 2018 par cette institution. Un événement, qui a compté sur la participation d'un large public, au Kutxa Kultur Plaza à Tabakalera, inauguré par la Secrétaire et Trésorier d'Eusko Ikaskuntza, Ana Urkiza. Le président de l'institution, Iñaki Dorronsoro, et le Président du Comité Organisateur du XVIIIe Congrès, Xabier Alkorta, ont ensuite pris la parole. Puis, les responsables des différents domaines de travail ont détaillé les principaux projets mis en œuvre par Eusko Ikaskuntza.

La publication, intitulée *XVIIIe Congrès d'Études Basques. Notre futur ensemble : Congrès du Centenaire*, contient 582 pages et est structurée en deux parties. La première comprend la Déclaration d'Eusko Ikaskuntza à l'occasion de son Centenaire, les bases du Livre Blanc du/des territoire/s d'Euskal Herria et un résumé des Mémoires du Centenaire de l'institution (en euskara, espagnol et français). La deuxième partie rassemble les présentations, interventions et résumés des rondes de chacune des cinq sections du Congrès, qui s'est tenu en automne 2018. Les textes de cette deuxième partie sont publiés dans les langues utilisées par les intervenants.

Des personnalités et des acteurs sociaux et politiques ont participé à la cérémonie de présentation, dont notamment : **Xabier Ezeizabarrena**, Président des Juntas Generales du Gipuzkoa ; **Maddalen Iriarte**, parlementaire du groupe EH Bildu ; **Harkaitz Millán**, Député de Culture, Coopération, Jeunesse et Sports de la Députation Foral du Gipuzkoa ; **Garbiñe Mendizabal**, Directrice pour l'Égalité Linguistique de la Députation Foral du Gipuzkoa ; **Mikel Arregi**, Directeur-Gérant d'Euskarabidea-Institut Navarrais de l'Euskara, du Gouvernement de Navarre ; **Kepa Korta**, Directeur du Bureau de Stratégie de la Ville de

Donostia/San Sebastián ; **Itziar Alkorta**, Directrice des Cours d'Été de l'UPV-EHU ; **Joxemari Sors**, Président de la Fondation Elkar ; **Paul Bilbao**, Secrétaire Général du Conseil des Organismes Sociaux de l'Euskara ; **Josu Waliño**, Directeur de la Fondation Puntueus ; **Martxelo Otamendi**, Directeur du quotidien Berria ; **Marije Etxaniz**, Directrice de Communication de LABORAL Kutxa ; **Javier Miranda**, Président de la Fondation Caja Navarra ; **Iñigo Marquet Beldarrain**, Directeur de Développement de la Fondation Orona.

Sept projets pour l'avenir

Cet événement visait à faire connaître les lignes d'action mises au point par Eusko Ikaskuntza, ainsi que leur trajectoire et les principales étapes. Au total, sept projets prioritaires, que l'association entend mener entre 2019 et 2021 :

- **Modèles de bien-être en Euskal Herria** : créer un laboratoire transfrontalier pour l'analyse et l'innovation sociale du modèle de bien-être, des politiques publiques et des services sociaux.
- **Équilibre territorial. Petites agglomérations intelligentes** : analyser et proposer des solutions au problème du risque de dépeuplement des zones rurales des territoires basques.
- **Gestion démocratique de la diversité en Navarre** : approfondir la coexistence entre les Navarrais et surmonter les difficultés qui entravent cette coexistence.
- **Système éducatif: Elaborer l'avenir ensemble** : jeter les bases d'une stratégie commune, au-delà des différences et des spécificités du système éducatif d'Euskal Herria.
- **Réseaux de coopération transfrontalière de la jeunesse** : autonomisation, engagement et organisation des jeunes, et développer des lieux de rencontre et de réflexion pour les jeunes.
- **Conflits de souveraineté territoriale en Europe: Bonnes pratiques et propositions de résolution** : approfondir la gouvernance démocratique, afin de renforcer et de développer la capacité de décision.
- **GizarteLab, explorer les compétences pour les transitions** : définir les défis actuels et concevoir l'avenir, afin d'être en mesure d'affronter les transitions futures et de promouvoir les compétences nécessaires pour ce faire.